PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA
ARARTEKOAK ANTOLATURIKO EKITALDIETARAKO ZERBITZUEN KONTRATUA
3/2023/PA esp.

I. XEDEA ETA IRISMENA

Agiri honen xedea Ararteko erakundeari askotariko ekitaldiak antolatzen laguntzeko zerbitzuen kontratazioa da.

Honako hauei lotutako zerbitzuak sartzen dira: antolaketa eta koordinazioa, jardunaldiak garatzeko baliabide teknikoak, laguntza-langileak (hizkuntza-interpreteak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, dinamizatzaileak, laguntzaileak, teknikariak eta sukaldaritza-zerbitzuak).

Hiru sorta jasotzen dira:
- 1. sorta: koordinazio-zerbitzuak eta langileak.

- 2. sorta: baliabide teknikoak eta lotutako zerbitzuak.

- 3. sorta: sukaldaritza-zerbitzuak.

Ekitaldi hauek ez dute aldizkakotasun edo tipologia zehatzik, ez eta kokapen geografikorik ere (hala ere, guztiak Euskadin egiten dira). Hortaz, hasiera batean ez dira zehazten, eta Arartekoaren zuzendaritza-taldeak horretarako egingo duen plangintzara egokitu beharko da, bai eta kontratua indarrean dagoen bitartean erakundeak dituen beharrizanetara ere, kontratuaren sorta eta urteroko bakoitzerako ezarritako gastuaren gehieneko mugarekin.

Kontratuaren xedetik kanpo geratzen dira egoitza aukeratzea eta erreserbatzea, gonbidapenak bidaltzea, seinaleak eta hizlariekin zerikusia duten alderdi guztiak, Arartekoak beretzat gordetzen dituenak.

Era berean, lizitazio honetatik kanpo geratzen da Arartekoaren urteko Udako Ikastaroaren antolaketa, zeina ezarritako arauen bidez eta UPV/EHUk kontrata ditzakeen zerbitzuekin kudeatzen baita.

Batzuetan, halaber, gerta daiteke ekitaldiaren egoitza Arartekoari guneak dohainik uzten dizkioten erakundeen lokaletan garatzea, eta hori dela eta baliabide tekniko edo pertsonal jakin batzuk (propioak edo kanpokoak) aipaturiko erakundeak esleituta egon beharko dira. Kasu horietan, lizitazio honetatik kanpo geratuko lirateke, izan ere, Arartekoak ezingo luke hornitzailea zehaztu.

II. ZERBITZUEN ZEHAZPENA

Eskaintzan jaso behar diren zerbitzu espezifikoak, alde batera utzi gabe lizitatzaileek zerbitzu gehiago sartu dezaketela, honako hauek dira:

1. **KOORDINAZIOA ETA LANGILE-ZERBITZUAK. Eskaintzak honako hauek barne hartu beharko ditu:**

   1.1. Zerbitzuen eta horniduren hornitzaileak ekitaldiaren egoitzarekin koordinatzea, ekitaldia behar bezala gauzatu dadila bermatzeko. Arduraldia 30 ordu ingurukoa izango dela aurreikusi da.

   1.2. Bertaratutakoen erregistroa eta kontrola: esleipendunak akreditazioak eta dagokien euskarri fisikoa eman beharko ditu, eta bertaratutakoak erregistratzeko sistema erraz bat ezarri beharko du.

   Gonbidapenak eta bertaratutakoen izen-ematearen kudeaketa Arartekoak egingo ditu zuzenean, eta esleipendunari Excel formatuan emango zaio, bertaratutakoak erregistratu eta kontrolatzeko.

1.3. Ekitaldian zehar pertsonen arretarako laguntzaileak. Euskaldunak izan behar dira, eta ingelesez jakin behar dute. Enpresa esleipenduna arduratuko da laguntzaile hauek hornitu eta koordinatzeaz.

1.4. Aldi bereko interpretazioa. Euskara, ingelesa eta frantsesa. Interpreteek akreditazio ofiziala izan beharko dute eginkizun horiek burutzeko. Enpresa esleipenduna arduratuko da interprete hauek hornitu eta koordinatzeaz.

1.5. Infoport motako ekipamendu eramangarria edo antzekoa, mikrofonoarekin eta hargailuarekin, aldi bereko interpretazioaren euskarrirako, kabina izatea ezinezkoa denean.

1.6. Zeinu-hizkuntzako interpretazioa, gaztelaniaz eta euskaraz. Interpreteek akreditazio ofiziala izan beharko dute eginkizun horiek burutzeko. Enpresa esleipenduna arduratuko da interprete hauek hornitu eta koordinatzeaz.

1.7. Ekitaldiaren dinamizazioa: Ibilbide egiaztatua duen langile elebidun, kazetari edo coach batek ekitaldi osoa edo horren zati bat dinamizatzea eta moderatzea. Bertan sartuko dira materialak aldez aurretik prestatzea, gidoia eta abar.

1.8. Argazki-erreportajea: Ekitaldiaren argazki-erreportaje bat egiteko eska daiteke. Bertan, ekitaldiko giro guztietako irudiak (bertaratutakoen harrera, agintarien helduera...) eta saioetako irudiak (aretoko, ikusleen eta ohorezko mahaiaren argazki orokorrak lehenetsiko dira hizlarien lehen planoen aurrean; baina ez dira baztertu behar) jasoko dira. Argazki-erreportajea formatu digitalean entregatu beharko da ekitaldia egin eta hurrengo bi egunetan, bost argazki izan ezik. Argazki horiek argazkilariaren eta Arartekoko komunikazio-arduradunaren artean

aukeratuko dira, eta ekitaldian zehar entregatu beharko dira, komunikabideei banatzeko.

1.9. Ekitaldiaren bideo bat egitea: Ekitaldiaren laburpen-bideo bat egiteko eskatu ahalko da, aldez aurretik grabaturiko materialetik abiatuta. Bertan, hasierako eta itxierako irudiak jasoko dira. Bideoaren iraupena 30 minutukoa, 15 minutukoa edo 5 minutukoa izan daiteke. Eskaintzan iraupen posible horietako bakoitzaren prezio unitarioa jaso beharko da.

Zerbitzuak ematen dituzten pertsonen joan-etorrien edo mantenuaren kostuak eskaintzan sartutzat jotzen dira.

2. BALIABIDE TEKNIKOAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK. Beharrezko baliabide posibleak (Aretoan ez badago halakorik) honako hauek izango lirateke:

2.1. Ikus-entzunezko baliabideak:

Telebista-zirkuitu itxia (TZI) eta ekitaldiaren grabazioa: gutxienez ITZko bi kamera eskaini behar dira eta bideo-seinalea ere egin behar da. Gainera, bideo-seinalea grabatu egin behar da, ondoren Arartekoari emateko.

Honako hauek barne hartuko ditu: power point, bideo eta ITZ proiekzioa. Proposaturiko proiektorea bereizmen handikoa eta argitasun handikoa (aretoaren tamainaren araberakoa) izan behar da. Proiekzioa pantaila handi batean egingo da, non ekitaldiaren irudia eta hainbat proiekzio-elementu agertuko baitira, hala nola pantailan sarturiko leihoak.

Era berean, monitore bat behar da hizlariek eszenatokitik pantaila handian proiektaturiko seinalea jarraitu ahal dezaten.

Eskaintzan osagarri horien guztien eguneko prezioa jasoko da.

2.2. Mikrofonoak: Eskaintzak mikrofono finkoa (mahaian edo atrilean), eskuko mikrofonoa, paparreko mikrofonoa eta diadema-mikrofonoa barne hartu beharko ditu. Eskaintzan eguneko prezioa jasoko da.

2.3. Prentsarako harguneak: Splitter bat instalatzea, 20 audio-hargunerekin, prentsarako, aretoko atzealdean. Eskaintzan eguneko prezioa jasoko da.

2.4. Ekitaldia streaming bidez errealizatzea. Emisiorako plataforma, web-zerbitzaria eta grabazioaren biltegiratzea barne hartuko ditu, eta galderak moderatzeko sistema bat eta sarbidea kontrolatzeko modulu bat izango ditu. Eskaintzan eguneko prezioa jasoko da.

2.5. Ikus-entzunezko teknikaria. Eskaintzan orduko prezioa jasoko da.

2.6. Ediziorako eta errealizaziorako teknikaria; hitzaldi bakoitza bereizita editatzeko izenburuarekin eta hizlariaren izenarekin, eta errealizazio-pantailen errealizaziorako. Eskaintzan orduko prezioa jasoko da.

2.7. Hizkuntza-interpretaziorako baliabideak:

- **Kabledun DCN sistemetarako edo haririk gabeko DCN sistemetarako aldi bereko itzulpenerako transmisio-unitate zentrala, edo bien konbinazioa CCU sinple batean; gehienez 245 unitate. Honako hauek izango ditu: transmisorea eta 8 kanaleko hargailu digitala, erradiadore infragorriak eta interprete digitalen euskarria eta idazmahaia, mikroaurikularrarekin.**
- **Transmisoreen maleta eta hargailu digitalak. 50eko modulua.**
- **Ez itzultzeko aurikularrak. Eskaintzan prezio unitarioa jasoko da.**

Eskaintzan eguneko prezioa jasoko da.

2.8. **Errealizazio-mahaia. Audio- eta bideo-nahasgailu profesionala, biak batera. Hainbat iturriren seinalea edukiekin (ppt-a, pantaila-hondoa, irudiak eta parte-hartzaileak) nahastea ahalbidetuko du.**

2.9. **HDMI banatzailea.**

2.10. **Hizlarientzako monitore profesionala. 49" tamaina-erreferentzia, bozgorailuekin, eta bertikalean eta horizontalean edo lurrean (falka barne) jartzeko aukera izan behar du, eta USBtik hainbat formatu irakurtzeko gai izan behar da.**

Baliabide teknikoen eskaintzak honako instalazio hauek barne hartuko ditu, kostu erantsirik gabe: sare tekniko osoaren konexioa eta funtzionamendua ziurtatzeko beharrezkoak diren korronte-kableak, soinua, zuntza eta egokigailuak eta konektoreak.

Halaber, kostu erantsirik gabe, ekitaldiaren bezperan dagozkion probak egitea eta osteko instalazioa, muntatzea eta desmuntatzea barne hartuko ditu.

Zerbitzuak ematen dituzten teknikarien joan-etorrien edo mantenuaren kostuak eskaintzan sartutzat jotzen dira.

3. SUKALDARITZA-ZERBITZUAK

3.1. **Kafe-zerbitzu arrunta, zerbitzaririk gabe; erabili eta botatzeko edo birziklatzeko ontziteria, mahai-zapia eta erabili eta botatzeko ahozapiekin. Kafeak, infusioak eta te-pastak izango ditu.**

3.2. **Kafe-zerbitzu osoa, zerbitzaririk gabe; beirateria, zeramikazko ontziteria, oihalezko mahai-zapia eta ahozapiekin. Gutxienez, honako hauek izango**

ditu: kafeak, infusioak, askotariko zukuak, frutazko brotxeta bat, bi pieza gazi-mini sandwicha eta bi pieza gozo.

3.3. Ur minerala. Ur-botilatxo edo brik indibidualak.

3.4. Luncha zutik, zerbitzariekin; beirateria, zeramikazko ontziteria, oihalezko mahai-zapia eta ahozapiekin. Gutxienez, honako hauek izan beharko ditu: 6 pintxo edo kanape —horietako bat patata-tortilla—, urdaiazpiko- eta gazta-taulak, 2 postre eta ogia. Edariak: ardoa, ura, garagardoak eta freskagarriak.

Sukaldaritza-zerbitzurako gunea muntatzeko eta desmuntatzeko lanak eta zerbitzuak ematen dituzten pertsonen joan-etorrien edo mantenuaren kostuak eskaintzan sartutzat jotzen da.

Esleipendun suertatzen diren enpresek Arartekoarekin harremanetan egoteko solaskide iraunkor bat izendatuko dute, eta hark koordinatuko ditu sorta bakoitzean egin beharreko zerbitzu guztiak kasuan kasuko ekitaldiaren arduradun diren Arartekoko langileekin.

III.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Lizitazio honetan jasotako edozein zerbitzu edo hornidura Ararteko erakundean dagokion eskaera egin ostean gauzatu beharko da. Eskaerak posta elektroniko bidez helaraziko zaizkio enpresa kontratistari.

Ekitaldi bakoitzean eman beharreko zerbitzuen edo horniduren kopuru zehatza, kasu bakoitzean, berau antolatzeko izendatu den Arartekoko arduradunak ezarriko du. Ez da ezartzen zenbateko ekonomiko bat eskaeraren gutxieneko muga gisa; hortaz, zerbitzuak eman beharko dira, zenbatekoa gorabehera.

IV. ZERBITZUAREN EDO HORNIDURAREN EGIKARITZE-EPEA:

Zerbitzuak ekitaldirako adierazitako egunetan emango dira, eta horiek ziurtatzeko beharrezkoak diren aldez aurreko prestatze-lanak barne hartuko dituzte.

Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, eskaerak gutxienez 15 egun lehenago egingo dira.

V. ORDAINTZEKO MODUA

Ordainketa eskaturiko eta emandako zerbitzu edo hornidura bakoitzari dagokion faktura aurkeztu ostean egingo da, eta erakundearen adostasuna beharko da.

I ERANSKINA – I. SORTA

Deskribapena		Urteko aurreikuspena	Unitateko gehieneko prezioa (€) "Deskribapena" zutabeko kopururako, BEZik gabe
1. Zerbitzu-hornitzaile desberdinen koordinazioa eta ekitaldiaren egoitzarekin.	Arduraldia 30 ordu ingurukoa izango dela aurreikusi da.	1	1.725,00 €
2. Bertaratutakoen erregistroa.	Akreditazioak eta euskarri fisikoa jasoko ditu, eta parte-hartzaileak erregistratzeko sistema bat ezarriko du, Arartekoak emandako zerrendatik abiatuta.	1	345,00 €
3. Ekitaldian zehar pertsonen arretarako laguntzaileak. Orduko prezioa	Euskaldunak izan behar dira eta ingelesez jakin behar dute. Koordinazioa enpresa esleipendunaren ardura izango da.	10	28,75 €
4. Aldi bereko interpretazioa euskaraz, ingelesez eta frantsesez. Orduko prezioa	Interpreteek akreditazio ofiziala izan beharko dute. Koordinazioa enpresa esleipendunaren ardura izango da.	8	138,00 €
5. Zeinu-hizkuntzako aldi bereko interpretazioa, gaztelaniaz eta euskaraz. Orduko prezioa	Zeinu-interpreteek akreditazio ofiziala izan beharko dute. Koordinazioa enpresa esleipendunaren ardura izango da.	10	92,00 €
6. Ibilbide egiaztatua duen langile elebidun, kazetari edo coach batek ekitaldia dinamizatzea. 2 orduko modulua.	Bertan sartuko dira materialak aldez aurretik prestatzea, gidoia eta abar.	1	575,00 €
7. Ibilbide egiaztatua duen langile elebidun, kazetari edo coach batek ekitaldia dinamizatzea. 5 orduko modulua.	Bertan sartuko dira materialak aldez aurretik prestatzea, gidoia eta abar.	1	1.725,00 €
8. Infoport motako edo antzeko ekipamendu eramangarria, mikrofonoarekin eta hargailuarekin aldi bereko interpretazioa egiteko. Prezioa 10 harguneko maleta bakoitzeko eta eguneko.		1	575,00 €
9. Ekitaldiaren argazki-erreportajea, ekitaldiko giro guztietako irudiekin.	Argazki-erreportajea formatu digitalean entregatu beharko da ekitaldia egin eta hurrengo bi egunetan, bost argazki izan ezik. Argazki horiek ekitaldian zehar entregatu beharko dira .	1	575,00 €
10. Bideoa Iraupena 30 minutu.	Arartekoak aldez aurretik izango duen grabaziotik abiatuta egingo	1	805,00 €

	da. Hasiera- eta itxiera-irudia izango ditu.		
11. Bideoa Iraupena 15 minutu.	**Arartekoak aldez aurretik izango duen grabaziotik abiatuta egingo da. Hasiera- eta itxiera-irudia izango ditu.**	**1**	**575,00 €**
12. Bideoa Iraupena 5 minutu.	**Arartekoak aldez aurretik izango duen grabaziotik abiatuta egingo da. Hasiera- eta itxiera-irudia izango ditu.**	**1**	**345,00 €**

II. ERANSKINA– II. SORTA

Deskribapena		Urteko aurreikuspena	**Unitateko gehieneko prezioa (€) "Deskribapena" zutabeko kopururako, BEZik gabe**
13. Ekitaldiaren grabazioa. Power point, bideo eta ITZ proiekzioa.	**Gutxienez ITZko bi kamera eskaini behar dira eta bideo-seinalea ere egin behar da. Gainera, bideo-seinalea grabatu egin behar da.** **Proposaturiko proiektorea bereizmen handikoa eta argitasun handikoa (aretoaren tamainaren araberakoa) izan behar da. Proiekzioa pantaila handi batean egingo da, non ekitaldiaren irudia eta hainbat proiekzio-elementu agertuko baitira, hala nola pantailan sarturiko leihoak.** **Eszenatokitik monitorizatzea barne hartuko du.**	**1**	**1.725,00 €**
14. Mikrofono finkoa mahaian edo atrilean. Prezio unitarioa eguneko.		**2**	**34,50 €**
15. Eskuko mikrofonoa. Prezio unitarioa eguneko.		**3**	**46,00 €**
16. Paparreko mikrofonoa edo diadema-mikrofonoa. Prezio unitarioa eguneko.		**3**	**57,50 €**
17. Prentsarako harguneak: Splitter bat instalatzea, 20 audio-hargunerekin. Prezio unitarioa eguneko.		**2**	**138,00 €**

18. Ekitaldia streaming bidez errealizatzea.	**Emisiorako plataforma, web-zerbitzaria eta grabazioaren biltegiratzea barne hartuko ditu, eta galderak moderatzeko sistema bat eta sarbidea kontrolatzeko modulu bat izango ditu.**	**1**	**4.025,00 €**
19. Ikus-entzunezko teknikaria Prezioa orduko.		**5**	**46,00 €**
20. Ediziorako eta errealizaziorako teknikaria Prezioa orduko.	**Hitzaldi bakoitza bereizita editatzeko izenburuarekin eta hizlariaren izenarekin, eta errealizazio-pantailen errealizaziorako.**	**1**	**172,50 €**
21. Hizkuntza-interpretaziorako baliabideak: Honako hauek izango ditu: aldi bereko itzulpenerako transmisio-unitate zentrala, transmisorea eta 8 kanaleko hargailu digitala, erradiadore infragorriak eta interprete digitalen euskarria eta idazmahaia, mikroaurikularrarekin.	**Unitate zentralak kabledun DCN sistemak edo haririk gabeko DCN sistemak izango ditu, edo bien konbinazioa CCU sinple batean; gehienez 245 unitate.**	**1**	**1.725,00 €**
22. Transmisoreen maleta eta hargailu digitalak. 50eko modulua. Maletaren prezioa egun erdiko.		**1**	**230,00 €**
23. Transmisoreen maleta eta hargailu digitalak. 50eko modulua. Maletaren prezioa egun erdiko.		**1**	**345,00 €**
24. Ez itzultzeko aurikularrak. Eskaintzan prezio unitarioa jasoko da.		**100**	**2,30 €**
25. Errealizazio-mahaia	**Hainbat iturriren seinalea edukiekin (ppt-a, pantaila-hondoa, irudiak eta parte-hartzaileak) nahastea ahalbidetuko du.**	**1**	**345,00 €**
26. HDMI banatzailea.		**1**	**115,00 €**
27. Hizlarientzako monitore profesionala.	**49" tamaina-erreferentzia, bozgorailuekin, eta bertikalean eta horizontalean edo lurrean (falka barne) jartzeko aukera izan behar du, eta USBtik hainbat formatu irakurtzeko gai izan behar da.**		**287,50 €**

III. ERANSKINA – III. SORTA

Deskribapena		Urteko aurreikuspena	Unitateko gehieneko prezioa (€) "Deskribapena" zutabeko kopururako, BEZik gabe
28. Kafe-zerbitzu arrunta, zerbitzaririk gabe; erabili eta botatzeko edo birziklatzeko ontziteria, mahai-zapia eta erabili eta botatzeko ahozapiekin. Prezioa pertsonako.	Honako hauek izango ditu: kafeak, infusioak eta te-pastak.	100	6,90 €
29. Kafe-zerbitzu osoa, zerbitzaririk gabe; beirateria, zeramikazko ontziteria, oihalezko mahai-zapia eta ahozapiekin. Prezioa pertsonako.	Gutxienez, honako hauek izango ditu: kafeak, infusioak, askotariko zukuak, frutazko brotxeta bat, bi pieza gazi-mini sandwicha eta bi pieza gozo.	70	9,20 €
30. Ur minerala. Prezio unitarioa	Ur-botilatxo edo brik indibidualak.	200	0,75 €
31. Luncha zutik, zerbitzariekin; beirateria, zeramikazko ontziteria, oihalezko mahai-zapia eta ahozapiekin. . Prezioa pertsonako.	Gutxienez, honako hauek izan beharko ditu: 6 pintxo edo kanape —horietako bat patata-tortilla—, urdaiazpiko- eta gazta-taulak, 2 postre eta ogia. Edariak: ardoa, ura, garagardoak eta freskagarriak.	130	34,50 €

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS
CONTRATO DE SERVICIOS PARA EVENTOS ORGANIZADOS POR EL ARARTEKO
Exp. 3/2023/PA

I.- OBJETO Y ALCANCE:

El objeto del presente Pliego es la contratación de servicios de apoyo a la institución del Ararteko en la organización de diversos eventos.

Se incluyen servicios ligados a la organización y coordinación, a los medios técnicos para el desarrollo de las jornadas, al personal de apoyo tal como intérpretes de idiomas, de lengua de signos, dinamizadoras y dinamizadores, personal auxiliar, personal técnico y a servicios de restauración.

Se contemplan tres lotes:

- Lote nº 1: servicios de coordinación y personal.

- Lote nº 2: medios técnicos y servicios asociados.

- Lote nº 3: servicios de restauración.

Estos eventos no tienen periodicidad o tipología concreta, ni localización geográfica (si bien se celebran todos dentro de Euskadi) por lo que no se definen inicialmente y habrá de adaptarse a la planificación que a tal efecto realice el equipo de dirección del Ararteko, y a las necesidades de la institución durante la vigencia del contrato, con el límite máximo de gasto establecido para cada uno de los lotes y anualidades del contrato.

Se excluye del objeto del contrato la selección de la sede y su reserva, el envío de las invitaciones, la señalética y todos los cuestiones relacionadas con los ponentes, aspectos que se reserva el Ararteko.

Asimismo, se excluye de la presente licitación la organización del Curso de Verano anual del Ararteko que se gestiona por las normas establecidas y con los servicios que pudieran contratarse desde la UPV/EHU.

También, en ocasiones, se puede dar la circunstancia de que la sede del evento se desarrolle en locales de instituciones que cedan sus espacios de forma gratuita al Ararteko, y ello pueda obligar a que determinados medios técnicos o personales, propios o externos, estén asignados por dicha institución. En estos casos quedarían excluidos de la presente licitación, ya que resultaría indisponible para el Ararteko la determinación del proveedor.

II.- CONCRECIÓN DE LOS SERVICIOS:

Los servicios específicos que deben recogerse en la oferta, sin excluir la posibilidad de que los licitadores incluyan alguno más, son:

1) COORDINACIÓN Y SERVICIOS DE PERSONAL.

La oferta deberá incluir:

1.1. La coordinación de los diferentes proveedores de servicios y suministros con la sede del evento, velando por el correcto desarrollo de la misma. La dedicación prevista se estima en torno a 30 horas.
1.2. Registro y control de asistentes: el adjudicatario deberá proporcionar las acreditaciones y su soporte físico correspondiente, así como establecer un sistema ágil para el registro de asistentes.
Las invitaciones y la gestión de la inscripción de asistentes se realizarán directamente desde el Ararteko, y se entregará al adjudicatario en formato Excel para el registro y control de asistentes.
1.3. Personal auxiliar para la atención a las personas durante el evento. Se requiere que sean euskaldunes, y dispongan de dominio de inglés, encargándose la empresa adjudicataria de su provisión y coordinación.
1.4. Interpretación simultánea de idiomas. Se contemplan euskera, inglés y francés. Las y los intérpretes deberán tener acreditación oficial para ejercer esas tareas La empresa adjudicataria se encargaría tanto de su provisión como de la coordinación. .
1.5. Equipamiento portátil tipo Infoport o similar con micrófono y receptor para soporte de la interpretación simultánea cuando no sea posible disponer de cabina.
1.6. Interpretación de lengua de signos en castellano y euskera. Las y los intérpretes deberán tener acreditación oficial para ejercer esas tareas, encargándose el adjudicatario de su provisión y coordinación. .
1.7. Dinamización del evento: Dinamización y moderación de todo o parte del evento por profesional bilingüe con trayectoria acreditada, periodista o coach. Se entenderá incluida en la misma la preparación previa de materiales, guiones, etc.
1.8. Reportaje fotográfico: Se puede requerir la realización de un reportaje fotográfico del evento, que incluya imágenes de todos los ambientes de la misma (recepción de los asistentes, llegada de autoridades…) y de las sesiones (priorizando, aunque no excluyendo, fotografías generales de la sala, del público y de la mesa presidencial sobre primeros planos de los ponentes). El reportaje fotográfico deberá ser entregado en formato digital en los dos días siguientes a la celebración del evento, con excepción

de cinco fotografías, a seleccionar entre el/la fotógrafo y la responsable de comunicación del Ararteko, que deberán ser entregadas durante el evento para su distribución a los medios de comunicación.
1.9. Realización de un vídeo del evento: Se puede requerir la realización de un vídeo resumen del evento, a partir del material previamente grabado, que incluya imagen de inicio y de cierre, y de diferente duración posible: 30 minutos; 15 minutos o 5 minutos. La oferta incluirá el precio unitario de cada una de estas posibles duraciones.

Los costes de desplazamiento o manutención de las personas que presten los servicios se consideran incluidos en la oferta.

2) MEDIOS TÉCNICOS Y AUDIOVISUALES.

Los posibles medios necesarios (en el caso de que la Sala no disponga de ellos) serían:

2.1. Medio audiovisuales:
CCTV y grabación del acto: como mínimo se deben ofertar dos cámaras de CCTV y la realización de la señal de vídeo, que además deberá ser grabada para su posterior entrega al Ararteko.
Incluirá la proyección de power point, vídeo y CCTV. El proyector propuesto deberá ser de alta resolución y alta luminosidad (acorde al tamaño de la sala). La proyección se realizará sobre una pantalla de grandes dimensiones con la imagen del acto y de los diferentes elementos de proyección como ventanas encastradas en ella
Asimismo, se requiere también un monitor para que los ponentes puedan seguir desde el escenario la señal proyectada en la pantalla grande.
La oferta incluirá el precio día de todos estos componentes.
2.4. Microfonía: La oferta incluirá micrófono fijo en mesa o atril, micrófono de mano, micrófono de solapa y diadema. La oferta incluirá el precio día.
2.5. Tomas para prensa: Instalación de un splitter con 20 tomas de audio para prensa en la parte posterior de la sala. La oferta incluirá el precio día.
2.6. Realización en streaming del evento. Que incluirá la plataforma para la emisión, el servidor web, el almacenamiento de la grabación, y contará con un sistema de moderación de preguntas y un módulo de control de acceso. La oferta incluirá el precio día.
2.7. Técnico o técnica audiovisual. La oferta incluirá el precio hora.
2.8. Técnico o técnica de edición y realización para la edición de cada ponencia por separado con título y nombre del ponente y la realización de plantillas de realización. La oferta incluirá el precio hora.
2.9. Medios para la interpretación de idiomas:

- Unidad central de transmisión para traducción simultánea para los sistemas DCN DE CABLE o DCN inalámbricos, o una combinación de ambos en una CCU simple, un máximo de 245 unidades. Incluirá transmisor y receptor digital 8 canales, radiador infrarrojos y soporte y pupitre de intérpretes digital con microauricular.

- Maleta de transmisores y receptores digitales. Módulo de 50.

- Auriculares deseables. La oferta incluirá el precio unitario

La oferta incluirá el precio día.

2.10. Mesa de realización. Mezclador profesional de audio y video todo en uno. Posibilitará la mezcla de señal de varias fuentes, con contenidos, ppt, fondo de pantalla, imágenes e intervinientes.

2.11. Distribuidor HDMI.

2.12. Monitor profesional para ponentes. Referencia de tamaño 49", con altavoces, y debe poder colocarse en vertical y horizontal, o en suelo (incluyendo cuña) y ser capaz de leer de USB diferentes formatos.

La oferta de medios técnicos incluirá, sin coste añadido, la instalación de cableados de corriente, sonido, fibra y adaptadores y conectores que sean necesarios para asegurar la conexión y funcionamiento de todo el entramado técnico.

Asimismo, comprenderá, sin coste añadido, la realización de las oportunas pruebas la víspera del evento, y la instalación, montaje y desmontaje posterior.

Los costes de desplazamiento o manutención de las personas técnicas que presten los servicios se consideran incluidos en la oferta.

3) SERVICIOS DE RESTAURACIÓN:

3.1. Servicio de café sencillo no atendido, con apoyo de vajilla desechable o reciclable, mantel y servilletas desechables que constará de cafés, infusiones y pastas de té.

3.2. Servicios de café completo no atendido, con apoyo de cristalería, vajilla cerámica, mantel de tela y servilletas. Constará, como mínimo, de cafés, infusiones, zumos variados, 1 brocheta de fruta, dos piezas saladas-mini sándwich y dos piezas dulces.

3.3. Agua mineral. Botellines o bricks de agua individuales.

3.4. Lunch de pie, atendido por camareros o camareras, con apoyo de cristalería, vajilla cerámica, mantel de tela y servilletas. Constará, como mínimo, de 6 pinchos o canapés- uno de ellos tortilla de patata- y tablas de jamón y queso, 2 postres y pan. Bebidas: vinos, agua, cervezas y refrescos.

Tanto las operaciones de montaje y desmontaje del espacio para el servicio de restauración, como los costes de desplazamiento o manutención de las personas que presten los servicios se consideran incluidos en la oferta.

La empresa o empresas que resulten adjudicatarias designarán un interlocutor permanente con la institución del Ararteko que será quien se encargue de coordinar todos los servicios a realizar en cada Lote con las personas del Ararteko que sean responsables del evento de que se trate.

III.- CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

Cualquiera de los servicios o suministros incluidos en la presente licitación deberán realizarse una vez formalizado el correspondiente pedido por parte de la institución del Ararteko. Los pedidos se realizarán mediante correo electrónico a la empresa contratista.

El número concreto de servicios o suministros a prestar en cada evento se establecerá en cada caso por la persona responsable del Ararteko que tenga asignada su organización. No se establece un importe económico como límite mínimo del pedido, por tanto deberán ser prestados los servicios con independencia de su cuantía.

IV. PLAZO DE EJECUCIÓN DEL SERVICIO O SUMINISTRO:

Los servicios se prestarán los días señalados para el evento e incluirán los trabajos preparatorios previos que sean necesarios para asegurar los mismos.

Para garantizar la calidad del servicio, los pedidos se realizarán con un mínimo de antelación de 15 días.

V. FORMA DE PAGO

El pago se realizará previa presentación de la factura correspondiente por cada servicio o suministro solicitado y prestado, que requerirá la conformidad de la institución.

ANEXO I - LOTE 1

Descripción		Estimación unidades anuales	Precio (€) unitario máximo para cantidad columna "Descripción", sin IVA
1. Coordinación de los diferentes proveedores de servicios y con la sede del evento.	La dedicación prevista se estima en torno a 30 horas.	1	1.725,00 €
2. Registro de asistentes.	Incluirá las acreditaciones y su soporte físico, así como establecer un sistema de registro de asistentes a partir del listado facilitado por el Ararteko.	1	345,00 €
3. Personal auxiliar para la atención a las personas durante el evento. Precio hora	Se requiere que sean euskaldunes, y dispongan de dominio de inglés. La coordinación recaerá en la empresa adjudicataria.	10	28,75 €
4. Interpretación simultánea de euskera, inglés y francés. Precio hora. Precio hora	Los y las intérpretes deberán tener acreditación oficial. La coordinación recaerá en la empresa adjudicataria.	8	138,00 €
5. Interpretación simultánea de lengua de signos en castellano y euskera. Precio hora	Los y las intérpretes de signos deberán tener acreditación oficial. La coordinación recaerá en la empresa adjudicataria.	10	92,00 €
6. Dinamización del evento por profesional bilingüe con trayectoria acreditada, periodista o coach. Módulo de 2 horas.	Se entenderá incluida en la misma la preparación previa de materiales, guiones, etc.	1	575,00 €
7. Dinamización del evento por profesional bilingüe con trayectoria acreditada, periodista o coach. Módulo de 5 horas.	Se entenderá incluida en la misma la preparación previa de materiales, guiones, etc.	1	1.725,00 €
8. Equipamiento portátil tipo Infoport o similar para la interpretación simultánea de idiomas con micrófono y receptor. Precio por maleta de 10 receptores y día.		1	575,00 €
9. Reportaje fotográfico del evento, que incluya imágenes de todos los ambientes de la misma.	El reportaje fotográfico deberá ser entregado en formato digital en los dos días siguientes a la celebración del evento, con excepción de cinco fotografías, que deberán ser entregadas durante el evento.	1	575,00 €
10. Vídeo Duración 30 minutos.	Se realizará a partir de grabación previa de la que dispondrá el Ararteko. Incluirá imagen de cabecera y cierre.	1	805,00 €
11. Vídeo Duración 15 minutos.	Se realizará a partir de grabación previa de la que dispondrá el Ararteko. Incluirá imagen de cabecera y cierre.	1	575,00 €
12. Vídeo Duración 5 minutos.	Se realizará a partir de grabación previa de la que dispondrá el	1	345,00 €

	Ararteko. Incluirá imagen de cabecera y cierre.		

ANEXO II - LOTE 2

Descripción		Estimación unidades anuales	Precio (€) unitario máximo para cantidad columna "Descripción" sin IVA
13. Grabación del acto Proyección de power point, vídeo y CCTV.	Como mínimo se deben ofertar dos cámaras de CCTV y la realización de la señal de vídeo, que además deberá ser grabada. El proyector propuesto deberá ser de alta resolución y alta luminosidad La proyección se realizará sobre una pantalla de grandes dimensiones con la imagen del acto y de los diferentes elementos de proyección como ventanas encastradas en ella. Incluirá la monitorización desde el escenario.	1	1.725,00 €
14. Micrófono fijo en mesa o atril. Precio unitario día.		2	34,50 €
15. Micrófono de mano. Precio unitario día.		3	46,00 €
16. Micrófono de solapa o diadema. Precio unitario día.		3	57,50 €
17. Tomas para prensa: Instalación de un splitter con 20 tomas de audio. Precio unitario día.		2	138,00 €
18. Realización en streaming del evento.	Incluirá la plataforma para la emisión, el servidor web, el almacenamiento de la grabación, y contará con un sistema de moderación de preguntas y un módulo de control de acceso.	1	4.025,00 €
19. Técnico o técnica audiovisual. Precio hora.		5	46,00 €
20. Técnico o técnica de edición y realización Precio hora.	Comprenderá la edición de cada ponencia por separado con título y nombre del ponente y la realización de plantillas de realización.	1	172,50 €
21. Medios para la interpretación de idiomas: Incluirá la unidad central de transmisión para traducción simultánea; así como transmisor y receptor digital 8 canales, radiador infrarrojos y soporte, y pupitre de intérpretes digital con microauricular.	La unidad central contemplará los sistemas DCN DE CABLE o DCN inalámbricos, o una combinación de ambos en una CCU simple, un máximo de 245 unidades.	1	1.725,00 €
22. Maleta de transmisores y receptores digitales. Módulo de 50. Precio maleta medio día.		1	230,00 €
23. Maleta de transmisores y receptores digitales. Módulo de 50. Precio maleta día.		1	345,00 €
24. Auriculares desechables. La oferta incluirá el precio unitario.		100	2,30 €

25. Mesa de realización	**Posibilitará la mezcla de señal de varias fuentes, con contenidos, ppt, fondo de pantalla, imágenes e intervinientes**	**1**	**345,00 €**
26. Distribuidor HDMI		**1**	**115,00 €**
27. Monitor profesional para ponentes.	**Referencia de tamaño 49", con altavoces, y debe poder colocarse en vertical y horizontal, o en suelo (incluyendo cuña) y ser capaz de leer de USB diferentes formatos**	**1**	**287,50 €**

ANEXO III - LOTE 3

Descripción		Estimación unidades anuales	Precio (€) unitario máximo para cantidad columna "Descripción", sin IVA
28. Café sencillo no atendido con apoyo de vajilla desechable o reciclable, mantel y servilletas desechables. Precio por persona.	**Constará de cafés, infusiones y pastas de té.**	**100**	**6,90 €**
29. Café completo no atendido, con apoyo de cristalería, vajilla cerámica, mantel de tela y servilletas. Precio por persona.	**Constará, como mínimo, de cafés, infusiones, zumos variados, 1 brocheta de fruta, dos piezas saladas-mini sándwich y dos piezas dulces.**	**70**	**9,20 €**
30. Agua mineral.	**Botellines o bricks de agua individuales.**	**200**	**0,75 €**
31. Lunch de pie atendido por camareros y camareras, con apoyo de cristalería, vajilla cerámica, mantel de tela y servilletas. Precio por persona	**Constará, como mínimo, de 6 pinchos o canapés-uno de ellos tortilla de patata- y tablas de jamón y queso, 2 postres y pan. Bebidas: vinos, agua, cervezas y refrescos.**	**130**	**34,50 €**